

EMAKUME ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO III PLANA

2024 - 2028

AURKIBIDEA

3	SARRERA
4	PLANAREN IKUSPEGIA
7	LEGE ESPARRUA
11	PLANAREN EGITURA
14	PLANAREN EZAUGARRIAK
15	DIAGNOSTIKOAN JASOTAKO PROPOSAMENAK
17	EKINTZA PLANA
33	PLANAREN KUDEAKETA

Dokumentu honetan, Bermeoko Udalak berdintasun-politikaren arloan 2024-2028 aldirako duen jarduera estrategikoari eusten dioten edukien proposamena aurkezten da.

Hainbat aurrera-pausu eman dira azken urteetan lege-esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari dagokionez. Nazioarte edo estatu mailan ez ezik, foru erkidego ezberdinetan eta udal mailan ere aurrera-pausu handiak ematen ari dira maila legalean. Zentzu horretan, legeek aitortutako berdintasun adierazpen formaletatik at, benetako berdintasuna lortzea da egungo berdintasun politiken erronka nagusia. Berdintasun erreal horretara urratsak ematea da hain zuzen, dokumentu honetan aurkezten den Bermeoko emakumeen eta gizonen Berdintasunerako III. Planaren helburua.

Herriko egoera aztertu da eta diagnostiko batean txertatu dira jasotako, beharrak, ekarpenak eta proposamenak. Herriko eragile ezberdinen inplikazioa ezinbestekoa izan da plan honen elaborazio prozesuan eta exekuzioan.

Tresna honen erabilera ziurtatzeko, herriko eta udaleko berezko ezaugarriak kontuan hartu dira, helburu eta helmuga errealak markatu dira eta aldi berean neurgarriak eta testuinguruari egokituak diren adierazleak ezarri dira.

Plan hau udal politikaren sektore guztiek zeharkakotasunez erabiltzeko tresna bat izan behar da; maila honetan, beste arloetako programa eta planekin uztartzeko ahalegin berezia egin da.



Murgibe

Berdintasun Aholkularitza

1. PLANAREN IKUSPEGIA

Bermeoko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako III. Planak kontuan ditu EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako VII. Planaren printzipioak eta lan-estrategiak.

01

Gobernu ona

Gobernu Onak genero ikuspegiaren kultura txertatzea proposatzen du ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren garapenaren kudeaketan, hainbat arlotan eragiten duelako, hala nola, gardentasunean, jendearen parte-hartzean, lankidetzan publiko-pribatuan, administrazioen arteko lankidetzan eta politika publikoen ebaluazioan, eta balio duelako, hain zuzen ere, politika publikoak hobetu eta helburuak lortzera bideratzeko. Azken batean, berdintasunean oinarritutako eredu baterantz joatea da helburua, eta horretarako oinarritzat hartzen dira eraginkortasuna, gardentasuna, kontuak ematea eta, oro har, herritarren parte-hartzea.

02

Emakumeak ahalduntzea

Munduko Agenda 2030 berriak eta Nazio Batuetako estatu kideek 2015ean onartutako Garapen Iraunkorreko Helburuek (GIH) XXI. mendearen ibilbidea aldatu nahi dute, eta ezabatu, hortaz, pobrezia, bizitzaren esparru guztietako desberdintasunak eta indarkeria matxista. Hala ere, NBE Emakumeak-ek adierazten duen bezala, ezin da hobekuntzarik egin alderdi horietan emakumeen ahalduntzerik gabe, hau da, ahalduntzea betekizun eta berme bat da munduan emakumeen eta gizonen berdintasunerantzko eraldaketa sozialerako.

03

Ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea eskubideak bermatzeko

Nazio Batuen Erakundeak adierazi du lehenetasuneko hiru arlotan jardun behar dela ekonomiak eraldatzeko eta eskubide ekonomiko eta sozialak gauzatzeko: emakumeentzako enplegu duina, genero-ikuspegia duten gizarte-politikak eta eskubideetan oinarritutako politika makroekonomikoak. Kontuan hartuta politika ekonomiko eta sozialek agendetan emakumeen eskubideak jartzen badituzte giza garapen iraunkorrari laguntzen zaiola, lan-ardatz hori proposatzen da, hain zuzen ere, era horretara heltzen zaizkielako NBEren lehenetasunei.

Ilido horretan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordearen 2016ko uztailaren 21eko Akordioak adierazten du beharrezkoa dela eztabaida publikoa bultzatzea egungo eredu ekonomikoaren eta horrek garapen jasangarrian daukan eraginaren inguruan eta pertsona guztien eskubideak bermatzea.

04

Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko biziak

Indarkeria matxista Giza Eskubideen urraketa larria da. Emakumeen aurka erabiltzen da, emakume izateagatik, egungo gizarte-eredu desberdin eta hierarkikoan gizonek emakumeekiko duten genero-diskriminazioaren eta boterearen ondorioz, zeinaren arabera emakumeak gizonaren mende dauden.

Indarkeria matxistatzat hartzen dira generoan oinarritutako indarkeria-ekintza guztiak, hala nola, pertsoneri kalte edo sufrimendu fisikoak, sexualak, psikologikoak edo ekonomikoak eragiten dizkietenak edo ekar diezazkietenak, baita ekintza horiek egiteko mehatxuak, hertsapenak edo askatasuna arbitrarioki kentzea ere, bizi publikoan edo pribatuan. Kontuan hartuko dira LGTBIQ+ kolektiboko pertsonak, aniztasun funtzionala duten pertsonak eta adingabeek jasaten dituzten indarkeria-egoerak.

2030ERAKO AGENDA

Munduko erronkei erantzuteko, 17 helburu daude jarrita, eta horietatik 5. Jomugarekin bat dator, hau da, genero-berdintasunaren eta emakumeen eta nesken ahalduntzearen 5. helburuarekin. Honako hauek lortzea da xede:

- Emakumeen eta neskatoen aurkako diskriminazioa amaitzea.
- Indarkeria matxista mota guztiak ezabatzea.
- Haurren ezkontza eta emakumeen mutilazio genitala ezabatzea.
- Zaintzak eta etxeko lana aintzat hartzea eta baloratzea.
- Emakumeek erabakitze-maila guztietan parte hartzea bizitza politikoan, ekonomikoan eta publikoan.
- Sexu- eta ugalketa-osasunerako sarbide unibertsala bermatzea.
- Baliabide ekonomikoetarako eskubide-berdintasuna: lurraren eta beste ondasun mota batzuen kontrola, finantza-zerbitzuak, etab.
- Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzea eta eskuratzea.
- Berdintasunerako eta ahalduntzerako politikak eta legeak onartzea eta indartzea.

2020-2025 GENERO BERDINTASUNERAKO EUROPAKO ESTRATEGIA

Hona hemen estrategia honen funtsezko alderdietako batzuk:

- Genero-estereotipoei aurre egitea
- Aukera-berdintasuna sustatzea, emakumeak eta gizonak ekonomikoki independenteak izan daitezen, eta genero-etenak desagerraraztea lan- eta soldata-eremuan.
- Berdintasuna gizarteko esparru guztietako aginte-postuetan, erabakiak hartzerakoan oreka egon dadin eta emakumeen talentua eta gaitasunak aprobetxa daitezen.
- Ikuspegi intersektionalaren integrazioa
- Emakumeen ahalduntzea lantzea

2. LEGE ESPARRUA

Azken urteotan emakumeei eta gizonei aukera-berdintasunerako eskubidea aitortzen dieten lege nahiz arau juridiko ugari onartu dira nazioartean, Europan, estatuan, baita udalerrietan ere. Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunerako eskubideak berariaz aintzatestea da horien helburua, eta honako Berdintasun Plan honen aterpe zabala dira, bai erakundeen bai legeriaren aldetik.

EREMU AUTONOMIKOA

- 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea
- 2/2026 LILE 17.1. 27 artikulua

ESTATU EREMUA

- 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen, ezartzen duena udalerriek jardura osagarriak egin ditzaketela «emakumeen sustapenerako» politiken esparruan.
- 1/2004 Lege Organikoa, genero-indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzkoa
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoa
- Genero Indarkeriaren aurkako Estatu Ituna, 2017ko abenduan onartua
- 901/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, berdintasun-planak eta horien erregistroa arautzen dituen eta laneko hitzarmen eta akordio kolektiboen erregistroari eta gordailuari buruzko maiatzaren 28ko 713/2010 Errege Dekretua aldatzen duena.
- 902/2020 Errege Dekretua, urriaren 13koa, emakumeen eta gizonen ordainsari-berdintasunari buruzkoa.
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eraginkorra sustatzeko Plan Estrategikoa 2022-2025.
- 15/2022, uztailaren 12koa, Tratu berdintasuna eta diskriminazio ezaren Legea.

EUROPA EREMUA

- Tokiko Bizitzako Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Europako Gutuna (2006)
- Istanbulgo Hitzarmena, emakumeenganako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeari eta borrokatzeari buruzkoa (Espainiako Estatuak 2014an berretsia)
- Berdintasunaren Batasuna: genero Berdintasunerako Estrategia 2020-2025

EREMU INTERNAZIONALA

- Garapen Iraunkorrerako 2030 Agenda (Garapen Iraunkorrerako Helburuak) (2015)
- Emakumearen aurkako diskriminazio-modu guztiak ezabatzeko Konbentzioa. (CEDAW) (1979 eta Espainiako Estatuak 1983an berretsia)

Jarraian, genero-politiken egitura teorikoan eta legalean nabarmendu diren mugarri batzuk aipatuko ditugu:

7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Tokiko Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen (03/12/21ean eguneratua).

Legearen 27.3. artikuluan xedatzen denez, udalek zerbitzu sozialen prestazioetan, aukera berdintasunaren garapenean eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioan eskumenak jaso dezakete. Testuinguru honetan tokiko administrazioak protagonismo argia du, legalki aukera emanez genero berdintasunean herritarrek dituzten beharrak eta asmoak asetzeko ekintza eta zerbitzuak antolatzeko, beti ere beste Administrazio Publikoen eskumenen galtze edo oztoporik suposatu barik.

1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legea

Lege honen baitan argi eta garbi zehazten dira zein diren, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan, administrazio maila bakoitzak dituen eskumenak, eginkizunak, antolaketa eta finantziazioa (I. Titulua).

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legeak honako zeregin hauek ezarri dizkio toki-administrazioari:

- Azpiegiturak, programak eta prozedurak egokitzea eta sortzea, bere administrazio-jardueran genero-ikuspegia txertatzeko.
 - Ekintza positiboko neurriak betearaztea toki-eremuan.
 - Toki-eremuan plangintza egitea, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorraren esparruan eta foru-aldundien lurralde-plangintzaren esparruan, eta lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan xedaturikoa zehaztuko eta lurralde-errealitatera egokituko duten arauak, jarraibideak eta gidalerroak sortzea.
 - Estatistikak egokitzea eta eguneratzea, toki-erakundeek esku hartzen duten eremu guztietan emakumeek eta gizonen zer egoera bereizgarri duten jakiteko.
 - Emakume eta gizonen egoerari buruzko azterlanak eta ikerketak egitea toki-eremuan.
 - Toki-eremuan sentsibilizazio-jarduerak egitea, emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria-egoeraz eta berdintasuna sustatzeko behar diren neurriez.
 - Jarraipena egitea toki-araudiari eta haren aplikazioari, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioaren araberakoa den.
- Herritarrei, eta batez ere emakumeei, informazioa eta orientazioa ematea emakumeen eta gizonen berdintasunarekin zerikusia duten baliabideei eta programei buruz eta diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko eskubideetarako sarbidea bermatzeko programa eta zerbitzuei buruz.
 - Diskriminazio anizkoitza jasaten duten emakumeek eskubideetarako sarbidea dutela bermatzeko eta emakumeen ahalduntzea bultzatzeko programak edo zerbitzuak ematea edo baliabideak ezartzea, hala nola ahalduntze-eskolak, emakumeen etxeak, sare komunitarioak eta udalez gaindikoak edo beste batzuk, zerbitzu horien izaera dela-eta udal mailan eman beharrekoak direnean.
 - Emakumei eta gizoni bizitza pertsonala, familia eta lana erantzunkidetasunez kontziliatzen laguntzeko baliabideak eta zerbitzuak ezartzea, duten izaera dela-eta udal mailan eskaini beharrekoak direnean.
 - Erakunde publiko zein pribatuekin harremanak finkatzea eta partaidetza eta lankidetzarako bideak ezartzea, baldin eta erakunde horien xedeek edo eginkizunek tokian-tokian emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesten laguntzen badute.
 - Toki-eremuan gertatzen diren sexuan oinarritutako diskriminazio-egoerak hautematea, eta egoera horiek ezabatzeko neurriak hartzea.
 - Bakoitzari bere eskumen-eremuan agindu dakioken beste edozein eginkizun.

EAEko Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako VII. Plana.

EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak frogatzen duenez, 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, funtsezko aurrerapausoa da berdintasun-politiken esparruan. Izan ere, arautu egiten du EAEko herri-administrazioaren jarduna, eta, hala dagokionean, erakunde pribatuena, berdintasunaren printzipio juridiko unibertsalean, bai tratu bera lortzeari dagokionez, baita aukera-berdintasunari dagokionez ere.

Egituretzeari dagokienez, oinarrizko lau eginkizun zehaztu dira:

1. Plana gauzatzean botere publikoen jarduera arautu behar duten oinarrizko printzipioak ezartzea (Legearen Atariko Titulua).
2. EAEko botereen eta herri-administrazioen jardunean genero-ikuspegia txertatzeko neurri sorta arautzea (I. eta II. tituluak).
3. Eginkizun eratzailea, hots, esku-hartze arloetan berdintasuna sustatzeko neurriak eratzea (III. titulua).
4. Oinarrizko edukiak definitzea.

Europako Gutuna emakumeek eta gizonek tokian tokiko bizimoduan izan behar duten berdintasunerako.

Europako Udalerrien eta Eskualdeen Kontseiluak eta bere bazkideek sustatu dute, Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako 5. Ekintza Egitasmo Bateratuaren esparruan. "Europako tokian tokiko eta eskualdeko gobernuentzako da. Izan ere, sinatzera, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioaren inguruko jarrera publikoa hartzera eta gutunean zehaztutako konpromisoak euren lurraldean ezartzera gonbidatzen ditu".

EUDEL (Euskadiko Udalen Elkartea) proiektuko bazkideetako bat da, eta gero eta gehiago dira gutuna sinatu duten udalak. Gutuna izenpetzen duten udalek konpromisoa hartzen dute bi urtean berdintasunerako plana egin eta gauzatzeko. Planak era parte-hartzailean egina egon behar du, ebaluazio-irizpideen arabera. Gainera, plana abian jartzeko behar adina baliabide izan behar dute udalek.

Europako Gutunak aitortzen duenez, tokian tokiko eta eskualdeko agintariak "esku hartzeko maila egokienak dira, desberdintasunen iraunkortasunari eta errepikapenari aurre egiteko eta benetako berdintasuna eskaintzen duen gizartea sustatzeko".

3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerakoa.

Lege hau honako premisa honetan oinarritzen da: "emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna giza-eskubideei buruzko nazioarteko hainbat testutan onartutako printzipio juridiko unibertsala da". Bestalde, legearen aurrean berdintasun formal erabatekoa onartzea funtsezkoa da, eta hobetu egin behar da araugintzaren bidez, izan ere, "oraindik ere geratzen diren sexuagatiko diskriminazio agerpen guztiei aurre egin behar zaie, diskriminazioa zuzena nahiz zeharkakoa izan, gizonezkoen eta emakumezkoen benetako berdintasuna bultzatzeko, eta hori lortzea eragozten duten oztopoak eta gizarte estereotipoak mugiaraziz".

Legea honako funtsezko printzipio hauetan oinarritzen da: "ekintza positiboa", "ordezkaritza orekatua" eta "zeharkakotasuna".

3. PLANAREN EGITURA

1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena, adierazten duen bezala, hauek dira emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan euskal botere publikoen jarduna gidatu eta bideratu behar duten printzipio orokorrak.

TRATU-BERDINTASUNA ETA IKUSPEGI INTERSEKZIONALAREN TXERTAKETA

Debekatuta dago pertsonen sexuan oinarritutako diskriminazio oro, zuzenekoak zein zeharkakoak, horretarako erabilitako modua edozein dela ere.

AUKERA BERDINTASUNA bermatzea emakumeek eta gizonek benetan baliatzen dituztela eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak eta arauetan aitor daitezkeen gainerako oinarrizko eskubideak, berdintasun-baldintzetan, boterea eta baliabide eta onura ekonomiko eta sozialak kontrolatzea eta eskuratzea barne. Lege honen ondorioetarako, aukera-berdintasuna boterea eta baliabide eta onurak eskuratzeko abiapuntu- edo hasiera-baldintzei ez ezik, horiek egikaritzeko eta benetan kontrolatzeko baldintzei ere badagokie.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA PREBENITU, ARTATU ETA DESAGERRARAZTEA

Euskal herri-aginteez zeharka txertatuko dute beren politika eta ekintzetan emakumeen aurkako indarkeria matxista prebenitzeko, artatzeko eta desagerrarazteko helburua, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren adierazpen muturrekoagoa den heinean. Era berean, euskal botere publikoen lehentasuna izango da emakumeen aurkako indarkeria matxistaren biktimei arreta osoa ematea, berreskuratzea eta erreparazioa ematea.

ANIZTASUNA ETA DESBERDINTASUNA ERRESPETATZEA

berdintasunerako bidean beharrezko bitartekoak jartzea errespetatu daitezkeen bai emakumeen eta gizonen arteko aniztasuna eta desberdintasunak, hain zuzen ere, kontuan hartuta biologia, bizi baldintza, nahi eta premiak, bai emakumeen eta gizonen kolektiboen barruko aniztasuna eta desberdintasunak.

GENERO IKUSPEGIA TXERTATZEA

genero-ikuspegia txertatzea politika eta ekintza guztietan, horietan guztietan ezarrita gera dadin. Lege honen ondorioetarako, genero-ikuspegia txertatzea da modu sistematikoan aintzat hartzea emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, jomuga eta beharizan desberdinak, eta politika eta ekintza guztietan desberdintasunak ezabatzea eta berdintasuna sustatzera bideratutako helburuak eta ekintzak eranstea, maila guztietan eta fase guztietan, hau da, planifikatu, egikaritu eta ebaluatzean.

EKINTZA POSITIBOA

emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra lortzeko, botere publikoek berriazko eta aldi baterako neurriak hartu behar dituzte, bizitzaren eremu guztietan sexuaren araberako desberdintasunak ezabatzeko edo murrizteko.

SEXUAREN ARABERAKO ROLAK ETA ESTEREOTIPOAK

EZABATZEA emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunaren oinarri diren sexuaren araberako rol sozialak eta estereotipoak desagerraraztea. Rol horien arabera, emakumeei etxeko arloaren ardura esleitzen zaie, eta gizonei eremu publikoarena, balorazio eta aintzatespen ekonomiko eta sozial oso desberdinarekin.

ORDEZKARITZA OREKATUA erabakiak hartzeko eremuetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua lortzeko neurri egokiak hartzea.

LANKIDETZA ETA KOORDINAZIOA berdintasun-politikak garatzea konplexua denez, garrantzitsua da sailen eta erakundeen arteko lankidetzaren eta koordinazio handiagoko lortzea, ez prozedura eta tresna estandarrik inposatuz eta ugarituz, baizik eta baterako lan-prozeduretatik, non arlo bakoitzak bere esperientziak, ezagutzak eta esku hartzeko gaitasunak ekarriko dituen.

EMAKUMEEN AHALDUNTZEA Euskal herri-aginteek emakumeen ahalduntzea bultzatzeko beharrezko baldintzak ezarri eta egokitzapenak egin behar dituzte, haien aniztasuna kontuan hartuta. Lege honen ondorioetarako, emakumeen ahalduntzetat hartzen da emakumeek emakume izateagatik jasaten duten desberdintasun- eta diskriminazio-egoera estrukturalaren kontzientzia indibiduala eta kolektiboa hartzeko egiten duten prozesua, bai eta bizitzaren eremu guztietan generoagatiko desberdintasuna eta diskriminazioa indartzen eta iraunarazten duten egiturak eta erakundeak eraldatzeko aukera emango dieten gaitasuna, boterea eta kontrola eskuratzeko prozesua ere.

GIZONEN INPLIKAZIOA zeharka eta berariazko ekintzen bidez, gizonen kontzientziarazioa, erantzukizuna, parte-hartzea eta inplikazioa sustatu behar dute, berdintasunaren alde eta indarkeria matxistaren aurka, bai eta berdintasunik gabeko maskulinitateak zalantzan jartzea eta desagerraraztea ere. Hori guztia, emakumeak ahalduntzeko lehentasunezko lana indartzeko eta osatzeko, eta pertsona guztien giza garapenerako eta justizia soziala eta berdintasuna lortzeko bide gisa.

PARTE-HARTZEA Euskal herri-aginteek, politika publikoen garapenean, talde feministen eta emakume-taldeen, gizarte-eragileen eta herritar guztien parte-hartzea eta solaskidetzaren bultzatu behar dute, haien ekarpenei zilegitasun handiagoa emango dien eta ekarpen horiek benetako eragina izango duten partaidetzaren eredu demokratikoago bat bultzatzeko. Horretarako, parte hartzeko espazio eta bide egokiak egokitu edo sortuko dituzte.

GARDENTASUNA ETA KONTUAK EMATEA EAEko botere publikoek berrikuntza eta etengabeko hobekuntza sustatu behar dituzte, eta gardentasuna eta herritarrei kontuak ematea bermatu behar dute, baliabide publikoen bidez emakumeen eta gizonen berdintasunari nola laguntzen zaion azaltzeko.

HIZKUNTZA-ESKUBIDEAK BABESTEAK ETA EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEA Euskal herri-aginteek bermatu egin behar dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren eremuan hizkuntza-eskubideak baliatuko direla eta euskararen erabilera sustatuko dela.

Bestetik, Bermeoko emakume eta gizonen berdintasunerako III. Berdintasun Plan hau, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planean jasotako bost printzipioei jarraituz egin da:

01

PARADIGMA FEMINISTA: pentsamendu-ildo feminista guztiak eta horien dimentsioak barne, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak eta diskriminazioak nola eta zergatik gertatzen diren azaltzea eta ulertzea ahalbidetzen duen teoria eta praktika politiko gisa.

02

GENERO-IKUSPEGIA: azterketa- eta lan-metodologia gisa, generoen arteko desberdintasunak ikusarazteko eta, ondorioz, lantzeko aukera ematen du. Genero-ikuspegian jartzeak beste era bateko AGENDA ERAIKITZEA eskatzen du, emakumeen aurkako diskriminazioaren aurkako agenda bat.

03


EMAKUMEEN AHALDUNTZEA: berdintasuna lortzeko ezinbesteko baldintza da; hainbat mailatan gauzatu behar den HELBURU, TRESNA eta PROZESU bat da (pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa), eta eremu desberdinetatik lagundu behar zaio (politiko-instituzionalean, antolakuntzan, gizartean eta herritarren mailan).

04

INTERSEKZIONALITATEA: generoak beste desberdintasun batzuekin duen interseksionalitatea aitortzea dakar, hala nola hizkuntza, klasea, etnia, arraza, sexu-aukera, adina, dibertsitate funtzionala eta abar. Patriarkatuarentzat, ordea, emakumeek genero-identitate bat partekatzen dute, baina, egiaz, ez diote identitate-ezaugarri bakar bati erantzuten.

05

GARAPEN JASANGARRIA: giza garapen globalak, jasangarria izan dadin eta egiturazko aldaketak susta ditzan, emakumeen eta gizonen berdintasuna eta genero-ikuspegia txertatu behar ditu ingurumenaren, gizartearen eta ekonomiaren dimentsioetan.



4. PLANAREN EZAUGARRIAK

Planaren helburu nagusia udal kudeaketan genero ikuspegia txertatzea da. Horretarako, toki mailan berdintasun politikak martxan jarri behar dira, arazko berdintasunaren eremutik harago, eta aukera eta emaitza berdintasun erreala bermatzeko xedea duten ekintzak burutu behar dira. Honako ezaugarriak ditu:

Lau urteko indarraldia dauka,
2024-2028 aldirako
diseinatuta dago.

Aldez aurretik egindako
diagnostikoarekin jasotako
informazioa kontuan izan da.

Plan irekia eta **malgua** da,
urteko planak definitzeke.



Ebaluatu daitekeen plana da, eta lortzen
diren helburuak neurtzen joateko
adierazleak kontuan hartu dira.



Aurreikusitako denboran eta
eskura dauden baliabideak
kontuan izanda, **Udal arlo
guztiek** eta Erakundeek
garatzeko helburu eta
ekintzak jaso ditu.

Konpromiso politikoa,
teknikoa eta herritarra
eskatzen duen udal mailako
tresna da

5. DIAGNOSTIKOAN JASOTAKO PROPOSAMENAK

Aurreko atalan adierazi den bezala, dokumentu honetan aurkezten den plana, diagnostikoaren bidez jasotako informazioaren arabera diseinatu da. Hauek dira diagnostikoan jasotako proposamen adierazgarrienak:

1.ARDATZA: GOBERNU ONA

- Politikari eta udal langilei berdintasunean formakuntza eman behar zaie, derrigorrezkoa eta planifikatua.
- Berdintasun arloa egonkortu behar da hurrengo urteetan eta berdintasun teknikariak barne koordinazio gune guztietan partehartzea.
- Zeharkako arloak elkarrekin lan gehiago egin beharko lukete. Lan Prebentzio Zerbitzuak, berrikuntzak eta berdintasunak.
- Genero aldagaia txertatzea erregistro orrietan.
- Genero ikuspegia lantzeko sortutako tresnen difusioa eta lanketa.
- Kontratu, diru, laguntza eta hitzarmenetan Berdintasun klausulak txertatzeko lanketa eta jarraipena egin zeharka; genero inpaktua aztertu.
- Barne Plana egitea.
- Berdintasunerako Kontseilua/mahaia martxan jarri.

2.ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

- Ahalduntze eskola garatzea, ahalduntzerako programa sendo bat lantzeko.
- Emakumeen etxea sortzea.
- Emakumeek Bermeon hainbat esparrutan egindako ekarpena eta izan duten papera ikusarazteko eta aitortzeko azterketa egin.
- Emakumeen errealitate anitzak aztertu: nagusiak, etorkinak, aniztasun funtzionala dutenak, gazteak, amatasun egoeran daudenak, ama bakarrak... ahalduntzerako estrategiak proposatzeko.



3.ARDATZA: EKONOMIAK ETA GIZARTEAREN ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO

- Matxismoaren inguruko sentsibilizazioa handitu herri mailan.
- LGTBI kolektiboaren ikusgarritasuna eta inklusioa lantzea.
- Hezkidetzaren herri mailan lantzea.
- Maskulinitate berdinezaleak lantzeko ekintzak sustatzea.
- Enpleguan genero arrakala murrizteko ekintzak martxan jarri: emakumeen lan baldintzak hobetzeko ekintzan sustatu. Kontutan izan aniztasuna.
- Emakumeen lan egoera aztertu (fabriketan, garbiketan, zaintza lanetan, etabar) beraien lan baldintzak hobetzeko proposamenak aztertu.
- Zaintza lanen balioa aitortzea, eta zaintza-lanekiko erantzunkidetasuna sustatzea.



4.ARDATZA: EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK GABEKO BIZIMODUAK



- Herriko mapa moreari jarraipena eman eta lurralde guzuean landu.
- Bermeo segurua bultzatu eragile ezberdinak inplikatuz: dendariak, merkataria, kirol eta kultur taldeak, kirol eta kultur guzuek...
- Indarkeria matxistaren aurrean erantzuteko protokoloa sakondu eta hobetu; eragile ezberdinekin eta herrian informazioa zabaldu modu jarraituan.
- Sentsibilizazioa indarkeria matxista ez normalizatzeko, toki ezberdinetan eta formatu ezberdinekin.
- Emakumeei zuzendutako aholkularitza juridikoa.
- Koordinazio mekanismoak berrikusi eta indartu; Koordinazio Protokoloa landu.

6. EKINTZA PLANA

Bermeoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planean hedatzen den jarduera-estrategia inguruko berdintasunaren arloko plangintza gehienek antolatzen dituzten lau ardatzetan oinarritzen da. Haren definizioa da; 1. kapituluaren (EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana eta Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Foru Plana) zehaztutako erreferenteetan oinarritu da.

Gauzak horrela, Bermeoko hirugarren Berdintasun Plana honela egituratzen da: 4 esku-hartze esparru, 11 programa, 20 helburu eta 60 ekintza ditu ekintza ditu ekintza ditu ekintza ditu..

ARDATZA	PROGRAMAK	HELBURUAK	EKINTZAK
Gobernu ona	4	12	30
Emakumeen ahalduntzea	2	2	8
Ekonomiak eta gizartearen antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko	3	3	16
Indarkeria matxistarik gabeko biziak	2	3	13
GUZTIRA	11	20	67

ARDATZA	PROGRAMAK	HELBURUAK
Gobernu ona	1.Programa: Berdintasunarekiko konpromiso politikoa 2.Programa: Parte-hartzea eta eragina 3.Programa: Berdintasunean gaikuntza 4.Programa: Udal kudeaketan transbersalitatea bermatzea	1.Udaletako emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken konpromiso politikoa eta bitartekoak indartu 2.Berdintasunerako elkarguneak sortu eta herritarrak udal-politika publikoetan parte-hartu dezaten bultzatzea 3.Udaleko epai-mahai eta zuzendaritza-organoetan emakume eta gizonen ordezkariak orekatu bermatu 4.Kontsultarako eta parte-hartzeko guneetan genero ikuspegia sartu 5.Udal langile guztiak eta ordezkari politikoak berdintasunean prestatu 6.Komunikazio berdinzalea sustatu. 7.Estatistiketan eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatu 8.Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartu 9.Udal-araudian berdintasunaren printzipioa eta genero ikuspegia txertatu 10.Genero ikuspegia kontuan hartu sektorekako eta zeharkako planetan 11.Udal aurrekontuaren genero ikuspegia aztertu 12.Berdintasunean oinarritutako giza baliabideen politika indartu
Emakumeen ahalduntzea	5. Programa: Emakume anitzen ahalduntzea 6. Programa: Bermeoko emakumeen memoria historikoa berreskuratzea	13. Emakumeen ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa sustatu ikuspegi intersektorialetik 14. Emakumeek historian zehar egindako ekarpenak aztertu eta ikustarazi

ARDATZA	PROGRAMAK	HELBURUAK
<p>Ekonomiak eta gizartearen antolakuntza eraldatzea, eskubideak bermatzeko</p>	<p>7.Programa: Berdintasun balioen sustapena. 8.Programa: Uztartze erantzukidea 9.Programa: Emakumeen autonomia sozioekonomikoa</p>	<p>15. Helburua: Herritarrek eta eragileek emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko duten sentsibilitatea hobetu 16. Helburua: Herritarrek zainketen balioaren eta erantzukidetasunaren garrantziaz sentsibilizatu 17. Helburua: Emakumeen autonomia sozioekonomikoa bultzatu</p>
<p>Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizimoduak</p>	<p>10.Programa: Indarkeria matxistaren prebentzioa landu. 11.Programa: Emakume biktimen babes eta arreta osoa bermatu.</p>	<p>18. Helburua: Indarkeria matxistaren aurrean, Udalaren jarrera eragilea sustatu 19. Helburua: Herritarrek indarkeria matxistaren inguruan sentsibilizatu eta prebentzioa landu 20. Helburua: Indarkeria sexista jasan duten emakumeei, beraien seme-alabei eta haiekin bizi diren mendokatuna duten pertsoneri ematen zaien arreta hobetu eta euren ahalduntze prozesuetan lagundu</p>

1. ARDATZA. GOBERNU ONA

1. Programa: Berdintasunarekiko konpromiso politikoa

1go. Helburua: Udaleko emakumeen eta gizonen berdintasunerako politiken konpromiso politikoa eta bitartekoak indartu

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
1. Udaleko aurrekontuetan berdintasunari partida ekonomiko bat egokitzen jarraitzea eta Berdintasunean oinarritutako udal-aurrekontuaren urteko igoera, udal-aurrekontuaren % 1eko dedikazioaren hurbilketa hobetuz, EAEko kalitate-estandarrak betez.					Ekonomia/kontabilidatea Arlo guztiak	Berdintasunari partidaren ehunekoa (udalak jasotako diru-laguntzak kontuan hartu gabe) Plana herritarren artean zabaldu da
2. Berdintasun teknikariaren lan postua egonkortzea.					Alkatetza Langileria	Berdintasun Planaren berri ematen da Berdintasun Zerbitzuaren eta berdintasun teknikariaren funtzioak definituta daude.
3. Komunikazio plan bat egin III Planeko ekintzak jendearteratzeko.					Alkatetza Berdintasuna Komunikazioa	Berdintasun teknikariaren lan postua udaleko lan postuen zerrendan dago. Berdintasun teknikariaren lan prostua egonkortu da
4. Urtean zehar berdintasunaren egun seinalatuen agenda zehaztu eta adierazpena eta kanpaina instituzionalak egin.					Alkatetza eta sail guztiak	Urteko agenda zehaztu da eta jarraipena egiten da
5. Udal sail guztiek berdintasunaren aldeko ekintzak burutzeko konpromisu orria sinatzea.					Arlo guztiak	Komunikazioa plana egin da eta jarraipena egiten da

2. Programa: Parte-hartzea eta eragina

2. Helburua: Berdintasunerako elkarguneak sortu eta herritarrak udal-politika publikoetan parte-hartu dezaten bultzatzea

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
6. Berdintasun teknikaria udal arlo ezberdinen koordinazio guneetan parte hartzea.					Alkatetza eta arlo guztiak	Berdintasunak herritar, lurralde eta erakunde gunean parte hartzen du Berdintasuna Lan prebentzio eta antolakuntza eta teknologia berrien arloekin koordinatzen da Berdintasunerako partehartzerako gunearen funtzioak definitu dira; Parte hartzaileen kopurua sexuz bereiztuta Udalen eta erakundeen arteko koordinazio- eta lankidetzeta-guneetan parte- hartzen da, kopurua
7. HERRITARREN PARTEHARTZERAKO GUNEA sortzea (Etxegunea, Berdintasun Foroa...), ordezkari politiko, tekniko, mugimendu feminista, herritarrak eta herriko beste eragile batzuekin.					Alkatetza	
8. Udalerrien arteko eta erakundeen arteko koordinazio eta lankidetzeta-guneetan parte hartzea (Berdinsarea, Bizkaiko Foru Aldundia, EUDEL eta Emakunde).					Berdintasuna Alkatetza	
9. Dokumentuak irakurketa errazeko bertsioan, audio-bertsioetan eta hizkuntza erberdinetan publikatzea.					Berdintasuna eta komunikazioa	

3. Helburua: Udaleko epai-mahai eta zuzendaritza-organoetan emakume eta gizonen ordezkariak orekatu bermatu

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
10. Udal zuzendaritza-organoetan ordezkariak orekatu bultzatzea, batez ere kirola, udaltzaingo eta zerbitzu arloetan.					Arlo guztiak	Zuzendaritza-organoak sexuz Epai-mahaietan ordezkariak orekatu ematen da
11. Udalak antolatutako epai-mahaietan ordezkariak orekatu neurtu.					Arlo guztiak	

4. Helburua: Kontsultarako eta parte-hartzeko guneetan genero ikuspegia sartu

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	23/24	24/25	25/26	26/27		
12. Udalak abian jartzen dituen parte hartze prozesu guztietan emakumeen parte hartzea ahalbidetzea.					Alkatetza Antolakuntza eta teknologia berriak	Parte-hartzea sexuz Emakumeen parte-hartzea ahalbidertzeko neurriak

3. Programa: Berdintasunean gaikuntza

5. Helburua: Udal langile guztiak eta ordezkari politikoak berdintasunean prestatu

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
13. Generoan eta berdintasun-politiketan Udaleko langile zuzendutako prestakuntza-plan bat ezartzea.					Berdintasuna eta arlo guztiak	Urteko parte-hartzea, sexuaren eta karguaren arabera Maskulinizatutako sailek (Udaltzaingoa eta Zerbitzuak) jasotako formakuntza orduak / urtero
14. Udal legealdi aldaketan ordezkari politikoei berdintasun politiken inguruko formazio saioa bideratzea.					Berdintasuna eta arlo guztiak	Jasotako prestakuntzarekiko asebetetze maila (1-10) Berdintasunaren aldeko sentsibilizazio maila (1-10)
15. Politikariek eta langileek Eusko Jaurlaritzak eta Bizkaiko Foru Aldundiak antolatutako berdintasunari buruzko prestakuntza-guneetan parte hartzea					Berdintasuna eta arlo guztiak	Prestakuntza jaso duten politikari kopurua, sexuz bereiztuta Formakuntzaren eraginaren inpaktua aztertu da

4. Programa: Udal kudeaketan transbersalitatea bermatzea

6. Helburua: Komunikazio berdinzailea sustatu

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
16. Udalaren barne eta kanpo komunikazioan hurrengoak bermatu: dokumentazio ofizialetan hizkera ez sexista; emakumeen presentzia orekatua eta anitza; estereotipo sexistak saihestea; emakumeen ahaldunderako lagungarriak diren jarduerak hedatzea; indarkeria matxistaren kontrako jarrera argia agertzea; zaintza eta zaintzaileen balorea sustatzea.					Arlo guztiak	udal arloek berdintasun zerbitzura bideratutako kontsulta kopurua Banatutako gidaliburu kopurua
17. Hizkuntza ez sexistarako gidak zabaltzea.					Arlo guztiak	

7. Helburua: Estatistiketan eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatu

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
18. Genero aldagaia txertatzea erregistro orrietan.					Antolakuntza eta teknologia berriak Berdintasuna	Udal mailan sexu aldagaia txertatu da erregistro orrietan
19. Udaletik egiten diren ikerketa eta diagnostikoetan sexu aldagaia sistematikoki txertatzea eta horren araberako azterketa egitea.					Arlo guztiak Berdintasuna	Sexu aldagaia txertatuta eta ustiatuta duten udal inkesta eta diagnostiko kopurua
20. Mandatu planaren jarraipenerako sexuz bereizitutako indikadoreak txertatzea eta genero inpaktua aztertzea.					Alkatetza Antolakuntza eta teknologia berriak	mandatu planean sexuz bereizitutako indikadoreak txertatu dira Mandatu planaren genero inpaktua aztertu da.

8. Helburua: Kontratu, diru-laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartu

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
21. Kontratu eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak txertatzeko instrukzioa sortzea.					Idazkaritza Arlo guztiak	Instrukzioa eginda eta jarraipena egiten da
22. Diru laguntzen plan estrategikoan berdintasun klausulak eta genero ikuspegia txertatzea.						Elkarteen berdintasun irizpideak eginda eta jarraipena egiten da
23. Erabilera publikoaz gozatzen duten elkarten berdintasun irizpideak zehaztu.						Diru laguntzen plan estrategikoak berdintasun klausulak txertatu dira
24. Udalean erabiltzen diren kontratu, diru laguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak txertatzea.						Kontratueta, diru laguntzetan eta hitzarmenetan txertatzen diren berdintasun klausulak arloz arlo
25. Diru-laguntzen ebazpenetan genero ikuspegiaren inpaktua aztertzea.						Diru laguntzen ebazpenetan genero inpaktua aztertzen da

9. Helburua: Udal-araudian berdintasunaren printzipioa eta genero ikuspegia txertatu

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
26. Ordenantzetan generoaren arabeko eraginaren ebaluazioak egitea.					Idazkaritza Arlo guztiak	Genero arabeko eragina txertatuta duten ordenantzen zerrenda.

10. Helburua: Genero ikuspegia kontutan hartu sektorekako eta zeharkako planetan

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
27. III Berdintasun Planaren epealdian abian jartzen diren plan sektorialetan genero ikuspegia txertatzea .					Arlo guztiak	Bultzatutako Planen zerrenda eta zenbatek duten genero ikuspegia

11. Helburua: Udal aurrekontuaren genero ikuspegia aztertu

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
28. Udal aurrekontuen azterketa genero ikuspegitik egitea atal eta programa zehatz batean.					Ekonomia/kontabilitadeari buruzko Alkatetza	Aztertutako atala eta programa

12. Helburua: Berdintasunean oinarritutako giza baliabideen politika indartu

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
29. Udaleko barne plana egitea.					Alkatetza Langileria	Barne Plana egin da
30. Sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpenari aurre egiteko protokoloaren zabalpena egin langileen artean.					Alkatetza Langileria	Protokoloaren inguruko informazioa urtero zabaltzen da.

C.V.: 07E8000FC98700B7C3Z1F9E713

2. ARDATZA: EMAKUMEEN AHALDUNTZEA

5.Programa: Emakume anitzen ahalduntzea

13. Helburua: Emakumeen ahalduntze pertsonala, kolektiboa, soziala eta politikoa sustatu ikuspegi intersektionaletik

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
31. Ahalduntze-programa antolatzea, ikuspegi intersektionala azpimarratuz (adinekoak, LGTBIQ+, migratuak, aniztasun funtzionala duten pertsonak)					Berdintasuna Gizarte Ongizatea	Zenbat jarduera garatu diren Zenbat emakumek parte hartu duten, aniztasuna kontuan hartuta (adina, jatorria, aniztasun funtzionala...) Jasotako prestakuntzarekiko asebetetze maila (1-10)
32. Emakumeen etxea sortzea.					Berdintasuna	
33.Emakumeen errealitate anitzak aztertu: nagusiak, etorkinak, aniztasun funtzionala dutenak, gazteak, amatasun egoeran daudenak, ama bakarrak...ahalduntzerako estrategiak proposatzeko.					Berdintasuna Gizarte Ongizatea	
34.Sentsibilizazio ekintzak burutzea emakumeen parte-hartzea indartzeko eta genero arrakalak murrizteko eremu ezberdinetan: Kirolean, aisialdian eta kuturan, arlo sozialean, etabar.					Arlo guztiak	

6. Programa: Bermeoko emakumeen memoria historikoa berreskuratzea

14. Helburua: Emakumeek historian zehar egindako ekarpenak aztertu eta ikustarazi

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
35. Bermeoko emakumeen ekarpenen memoria historikoa berreskuratzeko diagnostikoa egin.					Berdintasuna Euskara eta Kultura Kirola Behargintza Musika Eskola	Zenbat jarduera garatu diren Zenbat emakumek eta gizon parte hartu duten, aniztasuna kontuan hartuta (adina, jatorria, aniztasun funtzionala...)
36. Emakumeek tokiko kulturari egindako ekarpenak ikusarazteko jarduerak egitea: erakusketak, testigantzak, beka...					Berdintasuna Euskara eta Kultura	
37. Emakume ekintzaileen lanak ikusarazteko ekintzak burutu (azokak, topaketak, bideoak...).					Behargintza	
38. Emakumeen aitortza herri-elementuetan islatzea (kale, plaza, eraikin edota eskulturetan).					Berdintasuna Hirigintza	Emakumeen aitortza islatzen duten elementu kopurua

3. ARDATZA EKONOMIAK ETA GIZARTEAREN ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEKO

7.Programa: Berdintasun balioen sustapena.

15. Helburua: Herritarrek eta eragileek emakumeen eta gizonen berdintasunarekiko duten sentsibilitatea hobetu

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
39. Hezkidetza antolatzea herri mailan.					Heziketa Mahaia	Zenbat jarduera garatu diren Zenbat emakumek eta gizon parte hartu duten, aniztasuna kontuan hartuta (adina, jatorria, aniztasun funtzionala...) Jasotako prestakuntzarekiko asebetetze maila (1-10)
40. Ikastetxeetan hezkidetza-programak sustatzen jarraitzea, rol sozialak eta genero-estereotipoak gainditzeko.					Heziketa Mahaia	
41. Gazteen artean berdintasuna sustatzeko programak bultzatzea, bai eremu formalean, bai ez-formalean.					Heziketa Mahaia	
42. LGTBI kolektiboaren ikusgarritasuna eta inklusioa lantzeko antolatutako programak.					Berdintasuna Kultura eta Hezkuntza	
43. Jaietako programazioan genero ikuspegia txertatzea eta ekintza bereziak antolatzea (berdintasunaren aldeko jokoak, lehiaketak, etab.).					Berdintasuna Kultura eta Hezkuntza	
44. Berdintasunarekin lotutako funtsezko daten inguruan sentsibilizazio-kanpainak antolatzen jarraitzea adostutako urteko agendan.					Berdintasuna	
45. Maskulinitate berdinzaleen inguruan gizonduz programa garatzea heteronormatibitatea gainditzeko.					Berdintasuna	
46. Elkarteei zuzendutako berdintasuneko prestakuntza-ekintzak antolatzea.					Berdintasuna	
47. 50 langiletik beherako enpresak diruz-laguntzea berdintasun-planak gara ditzaten.					Berdintasuna Behargintza	Diru -laguntza kopurua

8. Programa: Uztartze erantzukidea

16. Helburua: Herritarrak zainketen balioaren eta erantzukidetasunaren garrantziaz sentsibilizatu

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
48. Zaintza mahaia sortu.					Berdintasuna Gizarte ongizatea	Zaintza mahaian partehartzea sexuz Ekintza kopurua eta partaidetza, sexuaren arabera Udal baliabideen ordutegietan egindako aldaketak Ekintza plana zehaztu da
49. Zaintzako langileentzako aholkularitza eta formakuntza eskaintzea.					Berdintasuna Gizarte ongizatea	
50. Bizitzaren eta zainketen jasangarritasunari buruzko sentsibilizazio-kanpainak egitea.					Berdintasuna Gizarte ongizatea	
51. Udal mailan antolatzen diren ekintzetan kontziliazioa errazteko udal baliabideak aztertzea eta egokitzea: ordutegiak, zaintza zerbitzuak...					Berdintasuna	
52. Bermeon zaintzaren eta zaintzaileen errealitatea ezagutzeko egindako azterketa lantzea eta ekintza plana zehaztea.					Berdintasuna	

9. Programa: Emakumeen autonomia sozioekonomikoa

17. Helburua: Emakumeen autonomia sozioekonomikoa bultzatu

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
53. Herriko emakumeen lan egoera genero ikuspegitik eta ikuspegi interseksionaletik ezagutzeko azterketa bat egin.					Behargintza Gizarte Ongizate Heziketa Mahaia	Azterketa egin da Ekintza kopurua eta partaidetza, sexuaren arabera. Talde zaurgarrien egoera aztetertu da.
54. Arrantzan, eraikuntzan, nekazaritzan eta industrian emakumeen ibilbide profesionalak bultzatzeko ekintzak antolatu.					Behargintza Heziketa Mahaia	

4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZIAK

10.Programa: Indarkeria matxistaren prebentzioa landu.

18.Helburua: Indarkeria matxistaren aurrean, Udalaren jarrera eragilea sustatu

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
55. Udalak adierazpen publikoak egitea berdintasun eza, sexuagatiko diskriminazio eta emakumeen kontrako indarkeria gertakari eta egoeren aurrean.					Alkatetza eta arlo guztiak	Egindako adierazpen publiko kopurua
56. Erantzun protokoloa zabaltzea eta eragile inplikatuak formatzea gertatutako indarkeria kasuen eta eraso sexisten aurrean.					Alkatetza eta arlo guztiak	Difusio kopurua Protokoloa martxan jarri den kasu kopurua Eragileek jaso duten formakuntza ordu kopurua
57. Herriko Mapa Morearen jarraipena egin eta identifikatutako hobekuntzak landu.					Hirigintza Udaltzaingo Zerbitzuak	Hobetutako guneak

4. INDARKERIA MATXISTARIK GABEKO BIZIAK

19. Helburua: Herritarrek indarkeria matxistaren inguruan sentsibilizatu eta prebentzioa lantzen jarraitu


EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
58. Indarkeria matxistari buruzko datuak urtero biltzea eta zabaltzea.					Gizarte Ongizatea Udaltzaingoa	Ebidentziak: gidak, triptikoak, diptikoak... burututako kanpaina kopurua Kanpainen inpaktua, parte hartzaile kopurua, sexuz bereiztuta Eskaintako formakuntza ordu kopurua Formakuntzetan parte hartu duten pertsona kopurua, sexuz bereiztuta. Jasotako prestakuntzarekiko asebetetze maila (1-10)
59. Emakumeenganako indarkeriaren aurkako sentsibilizazio kanpainak antolatzen jarraitu eragile ezberdinekin zehaztutako urteko agendan.					Berdintasuna eta arlotu guztiak	
60. Gazteekin indarkeria matxista prebenitzeko ekintzak antolatzea.					Berdintasuna Gazteria Heziketa Mahaia	
61. Indarkeria matxistari buruzko prebentzio- eta sentsibilizazio-materiala zabaltzea.					Berdintasuna Ongizatea Udaltzaingoa	
62. Bermeo segurua programa sortu herriko eragile ezberdinak inplikatur.					Berdintasuna Kultura eta Hezkuntza Kirola Behargintza	
63. Jaietan indarkeria matxista prebenitzeko kanpaina antolatzen jarraitzea.					Berdintasuna Gazteria Gizarte Zerbitzuak Kultura (jaiak)	

11 .Programa: Emakume biktimen babes eta arreta osoa bermatu.

20. Helburua: Indarkeria sexista jasan duten emakumeei ematen zaien arreta hobetu eta euren ahalduntze prozesuetan lagundu biktimen erreparazioa sustatzeko

EKINTZAK	EPEAK				ARLO ARDURADUNAK	ADIERAZLEAK
	24/25	25/26	26/27	27/28		
64. Jaietan parte hartzen duten eragileekin eraso sexisten aurrean erantzuteko protokoloa lantzea.					Berdintasuna Kultura eta Hezkuntza Ongizatea Udaltzaingoa	Informazioa zabaltzeko egindako ekintzak. Protokoloaren lanketan egindako hobekuntzak Protokoloaren koordinaketan parte hartzen duten eragileak eta bilera kopurua Indarkeriaren inguruko baliabide eta zerbitzuen erabiltzaileak
65. Emakumeei zuzendutako zerbitzu psikologikoa martxan jartzea eta mantentzea.					Berdintasuna Gizarte Ongizatea	
66. Emakumeenganako indarkeriaren inguruko baliabide eta zerbitzuen informazioa zabaltzea.					Berdintasuna arlu guztiak	
67. Indarkeria sexista jasan duten emakumeen arreta hobetzeko Protokoloa lantzen jarraitzea.					Berdintasuna Udaltzaingoa Gizarte Ongizatea	

7. PLANAREN KUDEAKETA



KOORDINAZIOA ETA PROGRAMAZIOA

Bermeoko Berdintasunerako III. Planaren garapen egokia bermatzeko, beharrezkoak diren koordinazio-egiturak sortu eta martxan jarriko ditu Udalak, 1/2023 LEGEGINTZAKO DEKRETUA, martxoaren 16koa, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen 3. artikuluan jasotako printzipio orokorreari jarraituz: *“Euskal herri-aginteeek, emakumeen eta gizonen berdintasunari dagokionez, elkarrekin lankidetzan aritzeko eta beren jarduketak koordinatzeko betebeharra dute, esku-hartze eraginkorragoak eta baliabideen erabilera arrazionalarekin bat datozenak egin ahal izan daitezen”*.

Plan honen jarduera-programatik eratorritako helburuak eta ekintzak lortzeko, beharrezkoa da plana bultzatzeko, haren jarraipena egiteko eta hura ebaluatzeko egiturak izatea. Berdintasun arloak sail eta aurrekontu propioa ditu. Berdintasun zinegotzia dago eta berdintasun teknikariaren lan postua egonkortzea aurreikusten da.

Honakoak dira Udaleko sustapen egituraren funtzioak:

- Urteko lehentasunak zehaztea.
- Jarduerak planifikatzea, dauden baliabideen arabera (ekonomikoak, langile arlokoak eta abar).
- Jarduerak martxan jarri eta ardurak banatzea.
- Jardueren jarraipena eta ebaluazioa.

Koordinaziorako, udal arlo ezberdinen ordezkarien gunea eta herri mailan parte-hartzerako gune bat sortzea aurreikusten da, dagozkion jarduerak planifikatu eta martxan jartzeko. Berdintasun Planaren jarraipena egingo da eta proposamenak eta iradokizunak jasoko dira. Bestalde, Berdintasunaren eta BFAko koordinazio guneetan parte-hartuko du.

PLANAREN JARRAIPENA



Urtero Plan operatiboak egingo dira eta berdintasuna planaren berri emango da informazio batzordean.

Planaren jarraipen eta ebaluazio txostenak egingo dira. Sentsu honetan, Berdintasun Planaren etengabeko ebaluazioa egingo da, eta urteko memoria bat. Ebaluazioa hainbat mailatan egingo da:

- Burutze-mailari dagokionez: jarraipen kuantitatiboa egingo da, plan eragileari jarraituz.
- Prozesuaren ebaluazioa: ezarpen prozesuaren indargune eta hobetzeko puntuak aztertuko dira, langile tekniko, politiko eta gizarte eragileei galdetuz. Honako eremuei emango zaie garrantzia: inplikazioa, lan eta koordinaziorako tresnak, komunikazioa, parte-hartze prozesuak eta abar.
- Eraginaren ebaluazioa: berdintasun politiken ondorioak aztertuko dira eta emakume eta gizonen arteko berdintasun arloan burututako aurrerapenak neurtuko dira. Plan honen baitan planaren inpaktua neurtzea oso alor garrantzitsua izango da.



AURREKONTUA

III Berdintasun Plana gauzatzeko lau urteetako aurrekontua urtero zehaztuko da. 2024eko aurrekontua 44.200 € da eta urtero igotzen joatea aurreikusten da. Urteko plan operatiboan desglosatu egingo da aurrekontua.

Laguntzak eskatuko dira (Kultura, Hezkuntza, Hirigintza...), bai Eusko Jaurlaritzan, baita Bizkaiko Foru Aldundian ere, jarduerak burutzeko

ERANSKINA

berdintasun tailerra • BERMEOKO UDALA

ebaluazio galdetegia - cuestionario de valoración

Data / Fecha: _____

Generoa/ Genero: _____ Adina / Edad: _____

Balora itzazu ondoko alderdi desberdinak, egokitzat jotzen duzun zenbakia markatuz. Kontutan izan, 1 zenbakia puntuazio negatiboena dela eta 6 zenbakia, positiboena.

Valora los distintos aspectos que presentamos, marcando el número que consideres oportuno, teniendo en cuenta que el 1 representa la puntuación máxima negativa y el 6 la puntuación máxima positiva.

	1	2	3	4	5	6
Tokia / Lugar de realización	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Data / Fecha de realización	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Ordutegia eta iraupena / Horario y duración	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Landutako edukiak / Contenidos trabajados	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Dinamikak eta metodologia / Dinámicas y metodología	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Prestatzailea / Formadora	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Giroa / Ambiente	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
Zure sentsibilizazio maila handitu da/ Tu nivel de sensibilización ha aumentado	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>
BALORAZIO OROKORRA / VALORACIÓN GENERAL	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>	<input type="radio"/>

Oharrak / Notas